

telebista ♦ irratia

Kontu bitxiak ekarriko ditu Joxe Mari Iriondok ETB1era

'Esanak esan' elkarrizketa saio berria eskainiko du ETBk asteazkenero

Lore Agirrezabal / Donostia

Euskal Telebistako albistegietan eta bestelako saioetan ikusiko ez ditugun aurpegiak *Esanak esan* saioan agertuko dira. Zer kontatu ugari duen jendearen lekukotasuna jaso nahi dute elkarrizketa saio berri horretan. Horrek, bide batez, euskararen lekukoak jasotzeko bide emango du.

ELKARRIZKETA izango da *Esanak esan* saioaren ardatz eta muina. Baina saio gehienetan ez bezala, hain ezaguna ez den jendea izango da elkarrizketa saio honetan protagonista. Tartean, asko izango dira, beren burua inoiz ezagutzera eman ez duten arren, ezagutzera emateko arrazoirik badutenak (egindako lanagatik, bizitako esperientziengatik...). Adin guztietako eta Euskal Herriko txoko guztietako jendea elkarrizketatuko du gaurtik aurrera Jose Mari Iriondok. Berak azaldu digunez, gehienetan pertsona bakarra elkarrizketatuko du, baina noiz-behinka bikoteekin ere hitz egingo du. Laster, esaterako, Pantxoa eta Peio gonbidatuko dituela esan digu.

Euskal Telebistan oraindik inoiz izan ez den jende



Asteazken gauerdio, Joxe Mari Iriondok norbaiti egingo dio elkarrizketa *Esanak esan* saio berrian.

asko dagoela dio Joxe Mari Iriondok, eta horiei eman nahi die leku. Albiste iturri ez direnei tokia egitea da saioaren helburua. Joxe Mari Iriondok esan digunez, garai bateko *Berriketa gutxi* saioak utzitako hutsunea bete nahi dute, «eguneroko notizietan gauza handirik sortzen ez duena, baina esateko gauza asko duen jendea, eta euskararen lekuko bezala garrantzitsu direnak»

bildurik. Beraz, medio gehienetan entzuten ez den euskara, galtzen ari diren hainbat hitz eta esamolde jasotzeko bide emango du *Esanak esan* saioak.

Gaur gauerdian eskainiko dute lehenengo saioa, eta, esaterako, Enrike Zurutuza albaitari ohiari egingo dio elkarrizketa. 55 urtez Azpeitiko albaitari izan da Zurutuza, baina euskalgintzan ere lan handia egin du;

50eko hamarkadan lehenengo euskarazko irratsaioak hasi ziren egiten bera, Basarri, Maria Dolores Agirre, Oñatibia eta beste zenbait baserri gaiak hizpide hartuz, eta, nolabait, horren berri zabalduz.

Elkarrizketak bertatik bertarakoak izanik, ukitu intimista izango du saioak, eta hori Jose Ramon Aldaik egindako dekoratu bereziak indartuko du.

laburrean

Hiru gurasotik bik ez dakite seme-alabek zer ikusten duten telebistan

Espainiako Ikerketa Soziologikoen Zentroak egindako inkesta baten arabera, hiru gurasotik bik ez dute kontrolatzen seme-alabek telebistan zer ikusten duten. Maiatzean egin zuten ikerketa 7 eta 16 urte bitarteko neska-mutilen eta horien gurasoen artean. Eta ondorioztatu dutenez, gurasoen %42k onartzen dute 12 urtetik beherako haurrentzat diren saioak kaltegarriak izan daitezkeela, baina ez dakitela zehazki beren haurrek horrelakorik ikusten dutenetz. Haurren %45ek beren gurasoek ez dietela aholkurik ematen onartu dute.

Bernadette Chirac eta Soha Arafat gonbidatuko dituzte France3 katera

Parisko eta Frantziako Ospitaleen Fundazioko presidente Bernadette Chirac (Jackes Chirac-en emaztea) eta *Palestina Etor-kizuna* elkarteko Soha Arafat (Jasser Arafaten emaztea) gonbidatuko dituzte *Des racines et des ailes* saiora. Chirac Frantziako ospitaleetan bizi-baldintzak hobetzeko hainbat proiekturen bultzatzaile da. Soha Arafat, berriz, gaitxo dauden gazte eta haur palestinarren bizi-baldintzak hobetzen saiatzen da. Elkarre bakoitzaren asmo eta helburuez jardungo dute. Ondoren, besteak beste, *Palestine: demain la paix* erreportaia eskainiko dute; Palestinan gazteek osatzen dute gehiengoa, eta bake prozesuak, berriki arriskuan jarri den bake prozesuak, haientzat duen esanahiaz dihardu.

'Euskal Herria: La mirada mágica'-ren azken atala gaur

ETB2 eskaintzen ari den dokumental saila gaur amaituko da. Euskal Herriko bazterrek airetik duten itxura ikusi dugu saio honetan. 21:45ean emango dute azken atala. Urte amaieran itzuliko da berriz.

laburrean

Debagoieneko GoiTBk zuzendari berria du urriaz geroztik

DEBAGOIENA eskualdeko telebistak zuzendari berria du. Arrasateko ATB telebistako zuzendari Joxe Aranzabal izan da orain arte, baina aldaketarekin, hau da, eskualdeko telebista sortzearekin, Andoni Urzelai durangarrak hartu du GoiTB zuzentzeko ardura. ATB sortu zenean eta lehenengo hiru urteetan aritu zen Arrasateko telebistan kazetari eta arduradun. Orain, ordea, multimedia proiektu bat zuzentzera itzuli da, horixe baita, Andoni Urzelaiak adierazi digunez, Goiena kooperatibaren helbu-

rua: alegia, produktu multimedia osoa eratzea.



Bestalde, euskarazko herri komunikabideek indar handia hartu dute Debagoienean, eta Goiena kooperatibak esparru hori zaindu nahi du. Komunikabideak ugaritu egingo dira, eta aukera

berri horien artean beste bat izan nahi du Goienaren proposamenak. Horretarako, beharrezko ikusi dute eskualdeko komunikabideek batuta ekitea bide horri. Eta dagoeneko GoiTB hasi da eskualdeko hainbat herritara seinalea hedatzen; albistegietan ere eskualdeko herrietako berri biltzen dute. Urte amaierarako, ordea, *Goienkaria* aldizkaria argitaratuko dute eta, gerora, Interneten atari bat sortzeko asmoa dute. Atari horren bidez, zerbitzu guztiak integratu nahi dituzte, Urzelairen hitzetan, «atari hori izango litzateke eskualdeko erreferentzia», eta beren produkzio osoa horrekin batera eskainiko lukete.

Oraingoz, bailarako telebista eta *Goienkaria* dituzte helburu.